araba álava
foru aldundia diputación foral

KULTURA ARABA

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Haziarabak artea hurbilduko die arabako bederatzi udalerritako haur txikienei

Jaialdiaren bederatzigarren edizioa azaroaren 13tik abenduaren 22ra egingo da, bizitzako lehen urteetatik gozatzeko arte eszenikoak, zinema eta ahozko narrazioa eskainiz

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 6a. Haziaraba, Landa Eremuko Arte Estimulazioko Jaialdia, Agurainera, Amurriora, Aramaiora, Dulantzira, Iruña Okara, Bastidara, Laudiora, Legutiora eta Oionera itzuliko da udazken honetan. Programazioa 0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta dago, eta txikitatik artera hurbiltzeko hainbat modu proposatzen ditu, haurren arreta, pertzepzio eta aurkikuntza erritmoak errespetatuz.

Púlsar-ek bultzatutako proiektuak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren, Vital Fundazioaren eta parte hartzen duten udalen finantzaketa du.

«*Kulturarako sarbidea bizitzako lehen urteetan hasten da. Haziarabari esker, Arabako udalerrietako haurrek kalitatezko esperientzia artistikoez goza dezakete etxetik gertu*», nabarmendu du Ana del Valek, Kulturako Foru Diputatuak.

Bestalde, Arantxa Ibáñez de Opacuak, Vital Fundazioaren zuzendariak, ekimenak lurraldearentzat duen balioa azpimarratu du: «*Haziaraba babestea familiek beren udalerrian kalitatezko kultur proposamenak aurki ditzaten laguntzea da. Esperientzia horiek txikitatik partekatzeak loturak sortzen eta gure herrietako kulturguneei bizia ematen ere laguntzen du*».

Ezagutzeko eta partekatzeko hiru proposamen

Aboon Teatro konpainiaren *Baby Esferic* izango da programazio eszenikoko proposamena. 0 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako lanak Lurra eta bertako biztanleak omentzen ditu. Hainbat istorio eta paisaiaren bidez, forma esferikoetan inspiratutako estetika fin eta bisualak planetaren magia haurtxo baten erritmoan ezagutzeko gonbita egiten du. Lanak sari garrantzitsuak jaso ditu, bai estatu mailan, bai nazioarteko jaialdietan.

Zinemaren arloan, *Harri Zopa eta beste zenbait alderantzizko ipuin* eskainiko da, 2 urtetik gorako haurrentzat. Rita&Luca Films banatzailearen bost film labur dira, fantasiaz eta umorez beteak, herri-ipuinak eta haurtzaroko ohitura unibertsalak berrinterpretatzen dituztenak. Zinemako Hontza izango da istorioen arteko hari gidaria.

Arabazanen eskutik egingo diren euskarazko ahozko narrazio saioek, 3 urtetik gorako haurrei zuzenduta, ipuinen inguruan elkartzera eta elkarrekin entzutearen plazeraz gozatzera gonbidatuko dute publikoa.

Carmen Gómez Preciado – mcgomez@araba.eus - 945 18 18 41 – araba.eus

«*Proposamen artistikoa zaintzen dugu, baita publikoari nola egiten diogun harrera, espazioa nola prestatzen den eta haur bakoitzari bere erritmoan gozatzeko zenbat denbora uzten diogun ere. Udalerriekin elkarlanean aritzea funtsezkoa da hori guztia ahalbidetzeko*», azaldu du Ander Elorza proiektuaren arduradunak.

Egutegia herriz herri

Herria	***Baby Esferic***	**Zinema**	**Ipuin-kontaketa**
Agurain	Azaroak 21	Azaroak 22	Azaroak 20
Amurrio	Azaroak 22	Azaroak 29	Azaroak 15
Aramaio	Azaroak 15	Azaroak 13	Azaroak 14
Dulantzi	Abenduak 18	Abenduak 22	Abenduak 21
Iruña Oka	Azaroak 16	Azaroak 30	Azaroak 23
Bastida	Azaroak 14	Azaroak 16	Azaroak 15
Laudio	Azaroak 15	Azaroak 13	Azaroak 14
Legutio	—	Azaroak 22	Azaroak 20 eta 27
Oion	Azaroak 20	Azaroak 27	Azaroak 13

Informazioa eta sarrerak

Udal bakoitzak antolatzen du bere herriko jardueretarako sarbidea: batzuk doakoak dira eta beste batzuk ordainpekoak. Ordutegiei, espazioei, erreserbei eta sarreren salmentari edo bilketari buruzko informazioa dagokion udalean kontsultatu beharko da, eta izapideak ere bertan egin beharko dira.
Haziarabak mila asistentzia baino gehiago erregistratu zituen 2025ean, eta lanean jarraitzen du haur txikienek beren ingurune hurbilean familiekin batera arteaz gozatzeko espazioak izan ditzaten.